

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Alkatearen dekretua, 2019ko irailaren 13koa, Kanpo Harremanetarako Erakundearteko Batzordeko ordezkari-tza eskuordetzeari buruzkoa**

2019ko maiatzaren 26ko tokiko hauteskundearen ondorio den Udalbatza eratu delarik, erakundeak parte hartzen duen kide anitzeko organoetan hura ordezkatzeko duten pertsona fisikoen izendapena berraztertu beharra dago.

Kanpo Harremanetarako Erakundearteko Batzordea arautzen duen martxoaren 18ko 52/2008 Dekretuaren 3. artikulua xedatutakoaren arabera, alkateari dagokio Udalaren ordezkaria izatea batzorde horretan.

Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124. artikuluan xedatzen duenez, bestalde, alkateak bere funtzioetako batzuk Tokiko Gobernu Batzarreko beste kideen esku utzi ditzake, dekretu bidez. Beraz, hau

Xedatu dut

Maiden Etxebarria García zinegotziari eskuordetzea Gasteizko Udalaren ordezkari-tza Kanpo Harremanetarako Erakundearteko Batzordean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 13an

*Alkatea*

*GORKA URTARAN AGIRRE*